| UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA<br><br>2006-01-25 | LEGAZPIKO UDALA | ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL<br><br>25-01-2006 |
|---|---|---|

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.
**Bilera-mota:** ohikoa.
**Eguna:** 2006-01-25 (asteazkena).
**Ordua:** Hasiera: 19:30 eta bukaera: 19:45
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**
Juan Ramon Larrañaga Mercero, alkatea.
Jose Luis Herranz Gutierrez, EAko zinegotzia.
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, EAko zinegotzia.
Jose Luis Cid Delgado, EAko zinegotzia.
Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.
Jose Luis Zabaleta Idigoras, EJko zinegotzia.
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EJko zinegotzia.
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, EJko zinegotzia.
Francisco Ramos Rehecho, Talde Mistoko zinegotzia.
Mª Isabel Ugarte Fernandez, PPko zinegotzia.
Gerardo Anton Martin, EBko zinegotzia.
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Iñaki Sanchez Gastañares, idazkaria.

**Bertaratu ezina adierazi dutenak:**
Iñaki Mendia Izagirre, atxikigabeko zinegotzia.
Oscar Jose L. Murillo Perez, PSEko zinegotzia.

**Aztergaiak:**
1.- Bidezkoa bada, joan den 2005-12-28ko bilkurari dagokion akta onartzea.
2.- Bidezkoa bada, Etxez-etxeko Laguntzaren Araudia hasiera batean onartzea.
3.- Soldatak igotzeari buruz eman den dekretua berrestea.
4.- Luzatu diren dekretuen berri ematea.
5.- Eskariak eta galderak.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1.- Bidezkoa bada, joan den 2005-12-28ko bilkurari dagokion akta onartzea.**
Aipatu akta aho batez onartu da.

**2.- Bidezkoa bada, Etxez-etxeko Laguntzaren Araudia hasiera batean onartzea.**
Martinez de Gereñu andreak hartu du hitza eta EUDELen eta Aldundiaren artean lortu diren akordioen ondoren Udalak eman behar duen urratsetako bat etxez etxeko laguntza

**Organo o Comisión:** Pleno.
**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.
**Día:** 25-01-20036 (miércoles).
**Hora:** Comienzo: 19:30 y final: 19:45
**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**
Juan Ramón Larrañaga Mercero, alcalde.
José Luis Herranz Gutiérrez, concejal de EA.
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de EA.
Jose Luis Cid Delgado, concejal de EA.
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA.
José Luis Zabaleta Idígoras, concejal de NV.
Francisco Javier Iraeta Alvarez, concejal de NV.
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, concejal de NV.
Francisco Ramos Rehecho, concejal del Grupo Mixto.
Mª Isabel Ugarte Fernández, concejal de PP.
Gerardo Anton Martin, concejal de IU.
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Iñaki Sánchez Gastañares, secretario.

**Personas que han excusado su asistencia:**
Iñaki Mendia Izagirre, concejal no adscrito.
Oscar Jose L. Murillo Perez, concejal de PSE.

**Orden del Día:**
1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 28-12-2005.
2.- Aprobación inicial, si procede, del Reglamento de Ayuda Domiciliaria.
3.- Ratificación de decreto relativo a incremento de retribución salarial
4.- Dar cuenta de los decretos dictados.
5.- Ruegos y preguntas.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 28-12-2005.**
Es aprobada por unanimidad la referida acta.

**2.- Aprobación inicial, si procede, del Reglamento de Ayuda Domiciliaria.**
Expone la Sra. Martinez de Gereñu que tras los acuerdos alcanzados entre EUDEL y Diputación, uno de los pasos a dar por los Ayuntamientos es la aprobación del nuevo



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria Enparantza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

zerbitzua arautuko duen erregelamendu berria onartzea dela jakinarazi du. Aipatu zerbitzu publikoa zailtasunak dituzten pertsonei etxean laguntzean datza eta, gaur egun, Legazpin ehun bat etxetan eskaintzen da zerbitzua.

Azalpenaren ondoren aho batez onartu da proposamena.

**3.- Soldatak igotzeari buruz eman den dekretua berrestea.**

Alkateak adierazi duenez, sindikatuekin 2005-2007 epealdirako lortu den akordioa jasoko duen testu legal egokia egiten ari da EUDEL. Hori lantzen eta egiten den bitartean, Udalei momentuz 2005. urteari dagozkion ordainsarien gaineko erabakiak har ditzatela gomendatu die EUDELek. Hemen, 2005. urteko ordainsariei onartutako %4,1eko igoera aplikatzea ebatzi duen dekretua onartu da eta, orain, dekretu hori berresteko eskatu zaio Osoko Bilkurari.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

**PRESA BIDEZ**, Alkate jaunak gai berri bat aztertzea proposatu du, honako hau alegia: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin langileen euskara-ikastaroak, hizkuntza gaitasuna, langileen ordezkapenetarako diru-laguntzak eta terminologia juridiko-administratiboa arautzeko Legazpiko Udalak sinatuta duen hitzarmena berritzeko erabakia. Presaren arrazoia aipatu erakundeak hitzarmena sinatzeko hilabeteko epea eman duela da. Dena den, atzo bertan Euskara batzordea egin zen eta gaia aztertu ondoren aldeko irizpena eman zuen.

Gaiak duen presa erabakitzeko botoetara jo ondoren aho batez onartu zen. Ondoren, hitzarmena berritzeko proposamena erabakitzeko botoetara jo eta aho batez onartu zen.

**4.- Luzatu diren dekretuen berri ematea.**

Dekretuak deialdiarekin batera bidali dira.

reglamento regulador del servicio de ayuda a domicilio, un servicio público destinado a la ayuda domiciliaria de personas con dificultades que actualmente se presta en unos cien domicilios de Legazpi.

Tras esta explicación se somete a votación la propuesta siendo aprobada por unanimidad.

**3.- Ratificación de decreto relativo a incremento de retribución salarial.**

Alkateak adierazi duenez, sindikatuekin 2005-2007 epealdirako lortu den akordioa jasoko duen testu legal egokia egiten ari da EUDEL. Hori lantzen eta egiten den bitartean, Udalei momentuz 2005. urteari dagozkion ordainsarien gaineko erabakiak har ditzatela gomendatu die EUDELek. Hemen, 2005. urteko ordainsariei onartutako %4,1eko igoera aplikatzea ebatzi duen dekretua onartu da eta, orain, dekretu hori berresteko eskatu zaio Osoko Bilkurari. (Expone el Sr. Alcalde que desde EUDEL se ha informado que se está trabajando en elaborar un texto articulado adecuado a la legalidad que recoja el acuerdo alcanzado con los sindicatos para el período 2005-2007. De ahí que se ha recomendado a los Ayuntamientos que únicamente adopten acuerdos de momento referidos a las retribuciones del año 2005. Por ello se trae a su ratificación el decreto por el que se ha establecido una subida de retribuciones de un 4’1% para el 2005).

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

**POR EL SISTEMA DE URGENCIA** el Sr. Alcalde propone la introducción en el orden del día del acuerdo para la renovación con el IVAP del convenio por el que se regulan los cursos de euskara para empleados, capacitación lingüística, subvenciones por sustitución de personal y ayuda en terminología jurídico-administrativa. La razón de la urgencia viene motivada por el plazo en el que el IVAP quiere que se firme el convenio. No obstante coincidió que ayer hubo Comisión de Euskara en la que se trató el asunto y obtuvo su dictamen favorable.

Se somete a votación la urgencia



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria Enparantza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**5.- Eskariak eta galderak.**
Mendia jaunak azkeneko Osoko Bilkuran kaleak garbitzeko zerbitzu publikoan irregulartasunak egon direnari buruz esan zuena gezurtatzeko, Alkate jaunak udal kontu-hartzaileak eta udal arkitekto teknikoak egin dituzten txostenak irakurri ditu.

Alkateak, arratsaldeko zortziak laurden gutxi direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

considerándose así unánimemente. Tras esa consideración se somete a votación el acuerdo de renovación del convenio siendo aprobado por unanimidad.

**4.- Dar cuenta de los decretos dictados.**
Los decretos se han enviado junto con la convocatoria.

**5.- Ruegos y preguntas.**
El Sr. Alcalde para refutar las afirmaciones que sobre irregularidades en el servicio público de limpieza viaria efectuó el Sr. Mendia en el último Pleno, da lectura a dos informe emitidos por el Interventor y Arquitecto Técnico municipales.

El alcalde levanta la sesión, siendo las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

| | |
|---|---|
| Iñaki Sanchez Gastañares<br>Idazkaria | Juan Ramon Larrañaga Mercero<br>Alkatea |



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria Enparantza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net